ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko apirilaren 30a, astelehena • 49 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

**Udalerriko hiriburuaren izena dela-eta egindako hutsak zuzentzea**

Udalbatzak, 2018ko martxoaren 15eko osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren idatzia jaso zen. Bertan adierazten zitzaigun Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Toki Erakundeen Erregistroan Lapuebla de Labarca udalerriko hiriburuaren izena txarto zegoela: “Puebla de Labarca, La / Lapuebla Labarka”.

Egiaztatu da, ezen Toki Administrazio eta Administrazio Erregistroekiko Harremanetarako zuzendariaren 2016ko otsailaren 15eko ebazpenean, autonomia erkidegoko udalerrien izen ofizialen berri ematen duenean, udalerriak izen bakarra duela ondorio guztietarako: “Lapuebla de Labarca”.

Beraz, aho batez erabakitzen da ministerioari eskatzea zuzen dezala Toki Erakundeen Erregistroan udalerriko hiriburuaren izena, izen ofizial bakartzat “Lapuebla de Labarca” ager dadin.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da, bat etorriz martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko kontzejuenak, ezarritakoarekin.

Lapuebla de Labarca, 2018ko apirilaren 20a

*Alkatea*
*MAIDER MURILLO TREVIÑO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.04.30 05:18:46 Z